

BEZEROEKIKO HARREMANA:

Gure negozio-ereduak bezeroarentzako arreta eta esperientzia integrala eskaintzea proposatzen du, hainbat jardueren bidez.

Lehenik eta behin, automatizazioaren erabilera nabarmentzen da: bezeroek beren ile mota gogokoena aukeratu ahal izango dute webgunearen edo aplikazioaren bidez. Honek erabakiak hartzeko prozesua arintzen du eta erosotasuna eskaintzen die erabiltzaileei.

Bestalde, pertsonalizazio-zerbitzua eskaintzen da, non bezeroek zalantzak argitzeko edo laguntza jasotzeko aukera izango duten email bidez. Zerbitzu honek bezeroaren arreta pertsonala bermatzen du, harreman hurbila eta konfiantzazkoa sortuz.

Horrez gain, Premium aukera bat eskainiko da, harpidetza baten bidez bezeroek gure negozioarekin lotura handiagoa izateko. Honek bezero fidelak sortzen lagunduko du, leialtasuna sustatuz eta bezeroaren esperientzia bereziago bihurtuz.

Azkenik, sare sozialetan aktibo egotea proposatzen da. Hau ezinbestekoa izango da produktuak promozionatzeko, komunitate bat sortzeko eta bezeroen zalantzak edo proposamenak kontuan hartzeko. Horrela, bezeroekin harreman zuzena eta sendoa eraikiko da.